

Hemen zaude: Hasiera » Aisia » “Euskal Sagardoa” dastatu eta Zumetaren koadro berriak ezagutzeko aukera ederra ekainaren 6an

# “Euskal Sagardoa” dastatu eta Zumetaren koadro berriak ezagutzeko aukera ederra ekainaren 6an

noa 2017-06-02 Aisia, Euskara, Ingurumena, Jendartea, Kultura 0 iruzkin



Sagardoa dastatzeko eman. Ez dago aurkezpen egokiagorik egiterik. Datorren asteartean Zumetarenean egingo den saioa halakoxea izango da. “Sagardo ezberdinak dastatuko ditugu eta bakoitzaren ezaugarrien berri emango dugu”, Unai Agirrek aditzera eman dignes. Eta Zumetaren estudioko koadroak ezagutzeko aukera izango da. Joan etorria egiteko doako autobus zerbitzua antolatu da Kale Nagusitik.

**NOAUA! Aurkezpenetik eta dastaketatik izango du ekainaren 6ko ekitaldiak. Nolako saioa prestatu duzue?**  
**Unai Agirre.** Euskal Sagardoa markaren aurkezpen ofiziala bezperan egingo da, ekainaren 5ean Albaolan

idatzi bilaketa irizpidea

bilatu

## Eguraldia Usurbilen

Igandea

17° 13°

28 km/h

## Agenda

|                                                      |                                           |
|------------------------------------------------------|-------------------------------------------|
| <div><div>MAI</div><div>29</div><div>al.</div></div> | egun osoa “Kilometroak bidea” erakusketa  |
| <div><div>EKA</div><div>4</div><div>ig.</div></div>  | 10:00 Eskubaloia Kiroldegian              |
| <div><div>EKA</div><div>5</div><div>al.</div></div>  | egun osoa Eskulan erakusketa              |
|                                                      | 17:00 LH-ko bertso jaialdia               |
| <div><div>EKA</div><div>6</div><div>ar.</div></div>  | 18:00 2. Berrintasun Planaren aurkezpena  |
|                                                      | 19:00 Ekitaldiak Zumeta Arte Estudioan    |
| <div><div>EKA</div><div>7</div><div>az.</div></div>  | 18:30 HH5 eta LH5-ekoen kantagintza saioa |
| <div><div>EKA</div><div>8</div><div>og.</div></div>  | 17:00 Udajolaseko guraso bilera           |
|                                                      | 18:30 Hitzaldia: hezkuntza lege berria    |
| <div><div>EKA</div><div>9</div><div>ol.</div></div>  | 17:00 “Irudipuinak” ikuskizuna            |

Egutegia ikusi →

(Pasaian). Eta biharamunean Usurbilen egongo gara, Zumeta Estudioan. Euskal Sagardoa zer den azalduko dugu eta datu nagusiak emango ditugu. Baina aurkezpen hau egitea proposatu zigutenean, egokiago iruditu zitzaigun dastaketa batekin lotzea. Hortaz, azalpenak emateaz gain, sagardo dastaketa bat egingo dugu Zumeta Estudioan.

**Animatzen direnek, beraz, jatorri izendapeneko sagardoa probatzeko aukera izango dute.**

Hori da. Neronek gidatuko dut sagardo dastaketa. Jatorrizko izendapeneko sagardo ezberdinak dastatuko ditugu eta bakoitzaren ezaugarrien berri emango dugu. Eta noski, jendearen zalantzak argitzeko tarterik ere izango da.

**Izendapen honekin urrats handia eman du sagardoaren sektoreak, ezta?**

Euskal Sagardoaren izendapena urrats handia izan da. Bazen bertako sagarrez eginiko sagardoa zehazteko garaia. Baina izendapenarena ez zen helburu bat, abiapuntu bat baizik. Ondoren etorriko diren proiektuetarako abiapuntua. Sagardogintzaren sektore barruan jende asko konbentzitura dago baina beste askori ere poliki-poliki transmititu behar diogu izendapenak duen garrantzia. Lan egiteko dinamika guztia aldatzen da. Bertako sagarraren alde egin behar da, kalitatearen alde egin behar da, beste diskurtso bat garatu behar dugu... Hau abiapuntu bat da eta ate gehiago irekiko dira honen atzetik.

**Apustu integrala da hau. Sagastiei eta basoei ere eragiten dielako, besteak beste.**

Bai, nolabait esatearren, guk dugun ondare guztia balioan jartzea ekarriko du. Gauza asko ditugu sagardoari lotuta: sagastiak, sagarrak, barietateak, lan egiteko modua, klima bat... Eta hori guztia balioan jartzeko ez dago bertako produktuekin lan egitea beste erremediorik. Ezin dugu hori guztia saldu eta gero sagarraren jatorria ez dakit nongoa izatea. Hemen, milaka urtetan bertako sagarra ekoiztu dugunean. Horregatik Euskal Sagardoa izendapena derrigorrezkoa da, sagardoa bere lekua eraman nahi dugu behintzat.

**5. SAGASTIAK LORETAN**

**Ekainak 3, larunbata**

**09:00-13:00** “Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak”, Aitor Etxeandiaren eskutik.

**Izen ematea:**

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

alkartasuna.eus

**Ekainak 6, asteartea**

19:00 Euskal Sagardoaren aurkezpena Zumeta Arte Estudioan. Sagardo dastaketa eta mokadutxoa.

Saioaren gidaria: Unai Agirre. Euskal Sagardoa izendapena duten sagardo ezberdinak dastatzeko aukera izango da.

Ezin da kotxez bertaratu. Autobus zerbitzua egongo da kaxkotik. 18:00etatik 19:00etara, Kale Nagusian Udaletxe azpiko bus geltokian. Saioa bukatutakoan, autobusak Kale Nagusian utziko ditu bidaiariak.

**Antolatzaileak:** SAGARDOAREN UNIBERTSITATEA, ALKARTASUNA Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, NOAUA Kultur Elkartea.

**Laguntzaileak:** USURBILGO UDALA, Usurbilgo SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK, ZUMETA Arte Estudioa, EUSKAL SAGARDOA, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, BIZI SAGARDOA.

**Elkarlanean:** TABAKALERA Kultur Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, CRISTINA ENEA Fundazioa, HAZIERA hazien artxiboa.

Harpidetu

Albiste hau atsegin baduzu, harpidetu orain horrelako albiste gehiago jaso ahal izateko.



Utzi zure iruzkina

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak \* markatuta daude

Iruzkin

Komunitatea

Usurbil Gure Esku Dago 2017-02-08

400 herritar frontoian, Maiatzaren 7ko Herri Galdeketaren alde.

Abenduan sortu zen Usurbilgo HERRITZARTU



Usurbil Gure Esku Dago 2017-01-31

OTSAILAK 5: Argazki Erraldoia maiatzaren 7ko Herri Galdeketaren alde.

Maiatzak 7ko Herri Galdeketaren alde 550



Usurbil Gure Esku Dago 2017-01-23

Herri Galdeketaren alde, 500 sinadura dagoeneko!!

Maiatzak 7ko Herri Galdeketaren alde 500



Usurbil Gure Esku Dago 2016-11-21

2017: HERRI GALDEKETA USURBILEN?

Erabakitzeko Eskubidearen aldeko olatu indartsu bat sortzen ari da Euskal Herrian eta



Juanjo Lertxundi 2016-10-29

ZER GALTZEKO PREST ZAUDE?

Irabazi nahi baduzu, jolastu beharra daukazu eta jolastean, galtzeko arriskua daukazu.



Sutegi Udal Liburutegia 2016-09-16

Sutegi Udal Liburutegian ere, ZUMETA BERRIKUSTEN!

Uztailaren 15etik Urriaren 16ra bitarte, Irungo



Sutegi Udal Liburutegia 2016-09-05

VIII Euskarazko literatura topaketa: Atertu arte itxaron

URRIAK 19an (asteazkena), arratsaldeko



Juanjo Lertxundi 2016-08-29

Esaldi laburra barneratzeko

” Zoriontsuago izan nahi baduzu, ez zaitzez



Izena \*

E-posta \*

Webgunea



CAPTCHA Code

\*

Iruzkina bidali

« Aurrekoa

Hurrengoa »

inorekin alderatu “



Juanjo Lertxundi 2016-08-19

Esaldi laburra barneratzeko

”Emozioak ez dira ukatu behar, ezagutu eta kudeatu baizik”



Sutegi Udal Liburutegia 2016-07-14

Hemen da FRESKAGARRIAK 2016!!!

Jada eskuragarri dago Buruntzaldeko Liburutegietan 2016. urteko



IKUSIENAK

BERRIENAK

IRUZKINAK

ARTXIBOA



Usurbildarrak, Gasteizko Euskal Herria Kantuz Egunean  
Maiatzeko azken larunbata izan



Ttipikaren bi abesti, Euskal Herriko Tikitixa Elkartearen Maketa  
Lehiaketan sarituak



12 puntuko gai zerrenda, Udalaren gaurko osoko bilkuran  
Astearte honetarako, maiatzaren



Martxa jendetsua, erraustegia eta makrokatzelaren aurka  
Jende askoren bizitzak inguratu



Irailean ospatuko den Usurbil Cup txapelketarako izen ematea zabalik  
Usurbil F.T.-k irailerako antolatuko

## Jarrai gaitzazu

@noaua(r)en Txioak

Usurbilgo baserriak eta baserritarrak

Usurbilgo ondarea  
ezagutzen

## Azken argazkiak



## Albiste nabarmenduak



Egurrezko Sagardo Lehiaketan, Urdaira nagusi  
Usurbilgo Urdaira sagardotegiak irabazi du Euskal Herriko I. Egurrezko



Sagardo Eguneko gehigarri berezia  
Ohi bezala, Usurbilgo Sagardo Egunaren inguruko gehigarri berezia

## Webmapa

- Agenda
- Aldizkaria
- Argazkitegia
- Komunitatea
- Merkatu txikia



Mosaiko erraldoia osatu dute  
Jende asko batu da gaur eguerdian  
Agerialden. Maiatzaren 7an



5. Dantza Eguna iruditan  
Kalejiran goizez, erromeri giroan  
arratsaldez eta beste behin, publikoa

Noaua TB

> Noaua!

> Zorion agurrak

> Zerbitzuak

## Artxiboa

Artxiboa



### Noaua Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil  
Tf: 943 360 321 [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)  
© 2017 Noaua Kultur Elkartea .

Babesleak:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

Cookie-ak erabiltzen ditugu nabigazio esperientzia hobetzeko eta gure zerbitzuak eskaintzeko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, ulertuko dugu horien erabilera onartzen duzula.

Ados